



MIKROBIDEOEN LEHIAKETA

Eguneroko bizitzan hondakin gutxiago sortzea, ekonomia zirkularren eta sorkuntza digitalaren funtsezko alderdia

LEHIAKETAREN OINARRIAK

LEHENBIZIKOA. XEDEA

Nafarroako Gobernuak, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuaren bidez, **mikrobideoen lehiaketa** antolatu du. Lehiaketa hori berria da abenduaren 3an ospatzen den "Nafarroaren Eguna" dela-eta egingen diren ekitaldien barnean eta **gazteen ingurumenarekiko harremana sustatzea** du xede, **eguneroko bizitzan hondakin gutxiago sortzetik abiatuta, ekonomia zirkularren eta sorkuntza digitalaren funtsezko alderdia** dela ikusirik.

Bideo labur bat egin beharko dute hondakinak murrizteko egunero egin daitezkeen ekintzei buruz, Europar Batasuneko politiken ildoan.

Aurkezten diren lanen originaltasuna baloratuko da.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK ETA FORMATUA

Mikrobideoen lehenengo lehiaketa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ikasten duten Nafarroako Foru Komunitate osoko gazteei zuzenduta dago:

- Parte-hartzaileek DBH ikasi behar dute (DBHko 1.etik 4.era).
- Gazteek bakarka edo taldean parte har dezakete. Talde bakoitzak gehienez hiru kide izanzen ditu, eta bideo bakar bat aurkez dezake.

Aurkeztuko diren lanek originalak eta aurretik argitaratu gabeak izan beharko dute.

Bideoek 2 minutu iraunen dute, gehienez ere. Aukeratutako gaia **"Eguneroko bizitzan hondakin gutxiago sortzea"** da.

Lanak euskaraz edo gaztelaniaz aurkez daitezke eta, nahi izanez gero, erabili ez den hizkuntzako azpitituluak sar daitezke bideoan.

Bideoak gero web inguruneetan edo sare sozialetan hedatzeko moduko formatu digital batean (FLV, MOV, WMV edo beste bat) igorri behar dira, pen-drive bidez, DVD edo antzekoen bidez, edo Dropbox moduko plataforma digitalen bidez.

HIRUGARRENA. NON ETA NOIZ AURKEZTU

Irailaren 1etik 22ra eman daiteke izena, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuko ondoko helbide honetara zuzenduta, harremanetan jartzeko behar diren datu guztiak adieraziz:

INGURUMENKO ETA LURRALDEAREN
ANTOLAMENDUKO ZUZENDARITZA NAGUSIA

Mikrobideoen lehiaketa

Ingurumenari buruzko Informazio eta
Hezkuntzaren Atala

González Tablas kalea, 9, beheko solairua
31005 Iruña (Nafarroa)

Harremanetarako datuak: 848 42 49 10 / 848
42 75 82/ 848 42 07 56 sian@navarra.es

LAUGARRENA. EPAIMAHAIA

Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiak epaimahai bat aukeratuko du, Ingurumeneko eta Hezkuntzako langileek osatua.

Epaimahaiaren erabakia Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuaren web orrian argitaratuko da, sarituak hautatu ondoren. Gainera, Hezkuntzako Buletinean, web orrian eta sare sozialetan argitaratuko da, aipatutako hedabideetan bideoak ere argitaratu ahalko direlarik.

BOSGARRENA. SARIAK

Saria izanen da: HD bideo kamera bat eta naturari buruzko liburu sorta (bideoa taldean egin bada, gehienez 3).

Sari banaketa abenduaren 3aren (Nafarroaren Egunaren) bezperatan izanen da, Nafarroako Jauregiko Tronuaren Aretuan. Irabazleei beren bideoak erakusteko eta/edo azaltzeko eta sariak jasotzeko deituko zaie.

Behar den aurrerapenarekin jakinaraziko zaie zehazki zer egunetan eta zer ordutan izanen diren sari banaketa eta bideo irabazleen proiektzioa.

SEIGARRENA. PARTE HARTZEKO KONPROMISOA

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek onartzea eta, orobat, Epaimahaiak edo Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak hartutako erabakiak onartzea.

Oinarriak ez betetzeak lehiaketatik kanpo gelditzea ekar dezake, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak edo Epaimahaiak erabakitzen badute.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak eskubidea izanen du finkatutako arauak betetzen ez dituen edonor lehiaketatik kanpo uzteko.

ZAZPIGARRENA. ESKUBIDEAK

Antolatzaileak eskubidea izanen du lehiaketa behar bezala joan dadin behar diren arau osagarriak emateko eta salbuespenak baimentzeko. Halaber, antolaketa batzordeak eskubidea izanen du ordutegiak finkatzeko edo aldatzeko, betiere, behar den aurrerapenarekin iragarriko dituelarik.

"Eguneroko bizitzan hondakin gutxiago sortzea, ekonomia zirkularraren eta sorkuntza digitalaren funtsezko alderdia" mikrobideoen lehiaketan parte hartzeak berekin dakar Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuari lagatzea aurkeztutako lanak, bai eta horiek kopiatzeko, banatzeko eta komunikazio publikorako eskubideak ere.

Copyrighta. Jasotzen diren lan guztiak Gobernuaren zein enpresa publikoen webguneetan eta sare sozialetan argitaratu eta hedatu ahalko dira, ahalik eta hedapen zabalena izan dezaten.

ZORTZIGARRENA. DATUEN BABESA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Nafarroako Gobernuaren fitxategi batean sartuko dira igorritako eskabide honetatik ateratzen diren datu pertsonalak, eskatzaileek horiek tratatzeko baimena ematen dutelarik.